

**AUZITEGI GORENAK GIZARTE EKIMENEZKO IKASTETXEEN
SOLDATA MURRIZKETAK ARBUIATZEN DITU**

Auzitegi Gorenak, azaroaren 12ko epaian, behin betiko arbuiatu ditu 2010ko ekainetik Gizarte Ekimenezko Ikastetxeen sektoreko langileei inposatutako soldata murrizketak, eta soldata osoa eta atzerapenak ordaintzera behartu du. EAEko JAN-ek, sektoreko patronalak plantilen ordainsarien ardura hartzera zigortu zituen, %5eko soldata murrizketa legez kontrakoa zela adierazten eta Administrazioari edozein beharra kentzen, eta erabaki honen kontra aurkeztutako helegitea errefusatu du orain Gorenak.

STEE-EILASek lehenengo momentutik salatu zuen Gizarte Eminezko patronalek gauzatutako aldebakarreko murrizketa. Modu berean, STEE-EILASek Eusko Jaurlaritzaren arduragabeko joera ere kritikatu zuen problemaren arduratik ihes egin zuelako nahiz eta haiek izan irakaskuntzako sektore guztietan soldata murrizketak ezarri zutenak legeak eskatzen zuena baino haratago eginik (Zapateroren Dekretuak Administrazioari langileen soldata besterik ez zuen murrizten). Gobernu berriak gertatutako aintzat hartu beharko luke eta López lehendakariak bultzatu zuen murrizketa politika baztertu.

Gure sindikatuak eta euskal gizarteak behin eta berriro errefusatu ditu zerbitzu publiko eta lan eskubideen aurkako neurri erasotzaile hauek. Beraz, pozten gara legea langileen alde agertu delako eta kontratatzen eta kaleratzen dituen enpresei dagokien soldata osorik ordaintzera behartzen dituelako.

Patronaleei -batez ere Kristau Eskola, AICE eta Centros Diocesanos- sententzia onartzea esijitzen diegu, hitzarmenari kasu eginten azaroko nominak gaurkotuz eta 2010. urtetik legez kanpo kendutako lansariak ordainduz. Horrela egin ezean STEE-EILAS-ek beharrezko neurriak hartuko ditu ikastetxeei legea betearazteko.

Hezkuntzan STEE-EILAS

ARABA: Eulogio Serdan, 5 01012 Gasteiz ☎ 945 14 11 04 📠 945 14 43 02 araba@stee-eilas.org

BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu) 48003 Bilbao ☎ 944 10 02 98 📠 944 10 13 60 bizkaia@stee-eilas.org

GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea) 20015 Donostia ☎ 943 46 60 00 📠 943 45 36 27 gipuzkoa@stee-eilas.org

NAFARROA: Descalzos, 72 (lonja) 31001 Iruñea ☎ 948 21 23 55 📠 948 22 97 90 nafarroa@stee-eilas.org